



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 7a

81. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Jabeldura, Estatuak eginiko inbertsio eskasak Nafarroako Foru Komunitatearen garapen sozioekonomikoan dituen ondorioei buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztu du (3. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

—Galdera, Errealitate Sozialaren Behatokiak pobrezia larriaren tasei buruz eman dituen datuei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (4. or.).

—Galdera, gizarte-ekintzako entitateentzako diru-laguntzetan berandututa egoteko arrazoiei buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (4. or.).

—Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezartzen dituen 39/2014 Foru Dekretuan jasotako neurriak aplikatzeak izan dituen emaitzei buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (5. or.).

—Galdera, Iruñerrian –Landabenen, hain zuzen– trenbide-sarea birmoldatzeari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (6. or.).

—Galdera, Hezkuntzako jantoki-bekari eta laguntza behar duten familiei eskola material guztiak estaltzen dizkien beka-sistema bati buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (6. or.).

—Galdera, 2016ko aurrekontuko kontusailen blokeoari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (7. or.).

—Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuan blokeatu diren kontusailei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (8. or.).

—Galdera, Hezkuntza Departamentuan blokeatu diren kontusailei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, Nafarroako Gobernua 23 milioi euro egiten duten kontusailak blokeatzera eraman duten arrazoiei buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (9. or.).

—Galdera, “Nasuvinsarekiko hitzarmena” eta “Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak” izeneko bi kontusailen blokeoari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, Los Agustinos industrialdean trenbideak eteten duen Probintzietako edo “zezenena” izeneko abelbideari jarraitutasuna emateko aurreikusten diren edo egin diren ekintzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Foruzaingoaren polizia-etxeetan bideozaintzako tresnen eta atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen gaineko parlamentu-aginduaren betetze-mailari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Foruzaingoko esku-hartzeko unitate bereziaren lana arautzeko protokolo bat prestatzeari begira Gobernuak duen konpromisoari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak dituen eskumenen barruan bekak emateko sistema aldatzeari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere eskaintzen dituen gradu edo bestelako titulazioak ikastetxe pribatuetan egiteko unibertsitate-ikasketetarako bekak emateari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (12. or.).
- Galdera, “Etxebizitza jarduketetarako diru-laguntzak eta subsidioak” eta “Etxebizitzen errentarientzako diru-laguntzak” kontusaileri buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, hainbat kontusailen blokeoak INTIA enpresa publikoan duen eraginari buruzkoa. María Carmen Segura Moreno andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Gizarteratze Errentaren defizitari buruzkoa. Maribel García Malo andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Medikuen Sindikatuak aurkeztu duen salaketari buruzkoa, Nafarroako Ospitalegune-ko Larrialdietan lehenengo urteko Barneko Mediku Egoiliarak B zirkuituko paziente larrien kasuez ere arduratzen omen direla-eta. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (16. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Gobernuak ez zion Nafarroako gizarteari aurrekontu-egoeraren eta egin duen 23 milioi euroren blokeoaren berri eman. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, jakitekoa Pablo Sarasate Orkestra Baluarte Fundazioan sartzeak zer dakarren bere finantzaketari, funtzionamenduari eta osaerari dagokienez. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (17. or.).
- Galdera, IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren Patronatuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan martxoaren 17an izandako istiluei buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).
- Galdera, Lodosako BHian D eredia ez eskaintzeko dauden arrazoiei buruzkoa. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (19. or.).
- Galdera, Enpresa Publikoetarako Gardentasun Planari buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (19. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Jabeldura, Estatuak eginiko inbertsio eskasak Nafarroako Foru Komunitatearen garapen sozioekonomikoan dituen ondorioei buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkezturiko jabeldura, Estatuak eginiko inbertsio eskasak Nafarroako Foru Komunitatearen garapen sozioekonomikoan dituen ondorioei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**JABELDURAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean eta honako zioen azalpen hau oinarri:

Orain dela gutxi jakin ahal izan dugu Nafarroa dela Estatuak azken hamar urteotan gutxien inbertitu duen autonomia erkidegoa. Aldi berean, nabarmen handitu da foru erkidegoak Estatuaren funtsei egindako ekarpena, urtean 490 milioikoa izatetik urtean 590 milioikoa izatea igaro baita.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari honako jabeldura hau egiten diogu:

Estatuak eginiko inbertsio eskasaren ondorioak Nafarroako Foru Komunitatearen garapen sozioekonomikoan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Errealitate Sozialaren Behatokiak pobrezia larriaren tasei buruz eman dituen datuei buruzkoa.***NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, Errealitate Sozialaren Behatokiak pobrezia larriaren tasei buruz eman dituen datuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ekainaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Errealitate Sozialaren Behatokiak iragan maiatzaren 12an emandako datuen arabera, pobrezia larriaren tasa % 20,6 murriztu da Nafarroako Foru Komunitatean 2015ean zehar.

Eskubide Sozialetako Departamentuak nola baloratzen du datu hori?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 27an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

**Galdera, gizarte-ekintzako entitateentzako diru-laguntzetan berandututa egoteko arrazoiei buruzkoa.***MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, gizarte ekintzako entitateen-

tzako diru-laguntzetan berandututa egoteko arrazoiei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

- Gizarte-ekintzako entitateentzako diru-laguntzetan zure departamentua berandututa egoteko

arrazoiak zein dira, kontuan hartuta ezen 5/2014 Foru Legeak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2008 Foru Legea aldatzen duenak, 3. artikuluan adierazten duela organo eskudunak onsen-erabakia eman beharko duela urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

---

**Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezartzen dituen 39/2014 Foru Dekretuan jasotako neurriak aplikatzeak izan dituen emaitzei buruzkoa.**

**CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezartzen dituen 39/2014 Foru Dekretuan jasotako neurriak aplikatzeak izan dituen emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezartzen dituen 39/2014 Foru Dekretua 2014ko maiatzean sartu zen indarrean. Harrezkero bi urte igaro ondoren, egiaztatu da denbora horretan 486 baimen eman eta aldi baterako 434 kontratazio egin direla. Nabarmendu behar da baimen mota horiek erabili dituzten funtzionarioen % 78 emakumezkoak direla.

Datu horiek eta azken bi urteetan foru dekretu horrek izan duen aplikaziotik datozen beste batzuk ikusita,

Zer balorazio orokor dauka Nafarroako egungo Gobernuak 39/2014 Foru Dekretuan jasotako neurriak aplikatzeak gaur arte izan dituen emaitzei buruz eta, zehazkiago, enplegu-sortzeari eta haren kalitateari dagokienez, bai eta foru dekretu hori erakarri zuen erabakiaren Jarraipen Mahaia deituz –edo, kasua bada, ordezkaritza sindikalarekiko negoziazio-esparru berri bat– neurri horiek gehitzeko edo aldatzeko aukerei edo beharrari buruz?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamorro

## **Galdera, Iruñerrian –Landabenen, hain zuzen– trenbide-sarea birmoldatzeari buruzkoa.**

*CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarrro jaunak aurkeztutako galdera, Iruñerrian –Landabenen, hain zuzen– trenbide-sarea birmoldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarrro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aur-

kezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2015eko urriaren 21ean, uneko Industria, Energia eta Turismoko ministro José Manuel Soria López jaunak (gaur egun ministro ohia denak) idatzizko mezu batzuk bidali zizkion orduko Volkswagen taldeko mundu-mailako erosketa-lehendakariorde Francisco Javier García Sanz jaunari (gaur egun Volkswagen taldeko mundu-mailako lehendakariorde nagusia denari), Volkswagen taldeak Espainiako estatuan dituen bi lantegietan egiten zituen inbertsioei ministerio horrek 2016an zehar eman nahi zizkien laguntzei buruz. Horien artean, Landabenen Iruñerriko trenbide-sarea birmoldatzea aipatzen zuen, 14,8 milioi euroko kontusaila zeukana.

Zer informazio du Nafarroako Gobernuak horri buruz, eta zer konpromiso politiko, ekonomiko edo beste edonolako izan ditzake (edo ditu) bere gain hartuta, gai hori dela eta?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarrro

## **Galdera, Hezkuntzako jantoki-bekari eta laguntza behar duten familiei eskola material guztiak estaltzen dizkien beka-sistema bati buruzkoa.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako jantoki-bekari eta laguntza behar duten familiei eskola material guztiak estaltzen dizkien beka-sistema bati buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak bere gain hartu behar du eskola publikoari prestigioa eman beharra kalitateko erakunde gisa, guztiak aukera berak izatearen helbururako funtsezko erakunde gisa eta guztientzako gizarte bidezkoagoa eta aurrerakoia-go garatzeko oinarrizko erakunde gisa.

Hori dela eta, ekitate berme gisa,

Zer urrats egin dira Hezkuntzako jantokirako beka bermatze aldera lanaldi murriztuko hilabetee-tan (iraila eta ekaina) eta asteazkenetan, haren beharra frogatu duten ikastetxeetan? Zer urrats egin dira laguntza behar duten familiei eskola

material guztiak estaltzen dizkien beka-sistema bat bermatzeko?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, 2016ko aurrekontuko kontusailen blokeoari buruzkoa.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, 2016ko aurrekontuko kontusailen blokeoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuaren eledun Ana Ollok ekainaren 1ean iragarri zuen blokeatu egin dela 2016ko aurrekontuaren % 0,6 –23 milioi euro–, eta departamentu guztiek daukatela kontusailen bat blokeatuta. Gobernuaren eledunak orobat adierazi zuen blokeo horrek esan nahi duela une honetan politika batzuei ematen ari zaiela lehentasuna. Hori ikusita, honako hau jakin nahi dut: Zerk eragin du aurrekontuko kontusailak blokeatzea? Zer politikari ari zaie lehentasuna ematen? Zuen ustez, kontusailak blokeatu baino lehen ez zenioten Nafarroako Parlamentuari horren berri eman beharko?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Eskubide Sozioletako Departamentuan blokeatu diren kontusailei buruzkoa.**

*ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Eskubide Sozioletako Departamentuan blokeatu diren kontusailei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozioletako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer kontusail blokeatu dira zure departamentuan, eta nola eraginen dio blokeo horrek departamentuari? ·

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuan blokeatu diren kontusailei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuan blokeatu diren kontusailei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer kontusail blokeatu dira zure departamentuan, eta nola eraginen dio blokeo horrek departamentuari?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



## **Galdera, Nafarroako Gobernua 23 milioi euro egiten duten kontusailak blokeatzera eraman duten arrazoiei buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernua 23 milioi euro egiten duten kontusailak blokeatzera eraman duten arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2016ko ekainaren 1ean, Nafarroako Gobernuak bere departamentu guztiei eragiten dien aurrekontu-blokeo bat baieztatu zuen.

Zerk eraman du Nafarroako Gobernua 23 milioi euro egiten duten kontusailak blokeatzera?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

## **Galdera, “Nasuvinsarekiko hitzarmena” eta “Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak” izeneko bi kontusailen blokeoari buruzkoa.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, “Nasuvinsarekiko hitzarmena” eta “Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak” izeneko bi kontusailen blokeoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Legegintzaldi honetan ia igaro den urtebetean Parlamentu honek hainbat ekimen jaso ditu zuntz optikoko sareak hedatzearen alde, horrela bai Nafarroako biztanleek bai gure enpresek informazio digitalaren teknologiak hobeto eskuratze aldera.

Baina Ogasunak gastu sozialetan gertatutako desbideratzeak estaltzeko asmoz agindu duen blokeoak eragina izan du bi kontusailetan, aipatu dugun helburuarekin zuzenean lotzen baitira, gure ustez. Kontusailak dira, alde batetik “Nasuvinsarekiko hitzarmena” (810011 81220 7400 467700), hasierako 500.000 euroko zenbatekoa onetsia duena, eta kreditu guztiak (% 100) blokeaturik geratu zaizkiona; eta, bestalde, “Banda zabala ezartzeko diru-laguntzak” kontusaila (810011 81220 7709 467902), beste 500.000 euroko hasierako zenbatekoa onetsia duena, zeinetatik 233.555 euro blokeatu baitira; alegia, onetsiriko hasierako guztizko kopuruaren % 46,71.

Horregatik guztiagatik, gai horri buruzko honako galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

1. Zuntz optikoa hedatzea funtsezko elementutzat jotzen ote duen informazioaren gizartearen garapenerako, eta hori egin ezean gure ekonomia eta gure garapena ukituak gera ote daitezkeen.

2. Nola beteko diren aurten Nafarroan zuntz optikoa hedatzearen helburuak, bai eta legegintzaldiaren gainerako urteetan ere. Zein diren Gobernuaren proiektzioak, eginak baldin baditu, gai honi dagokionez.

3. Zuntz publikoaren sarea hedatzea funtsezkoztat jotzen ote duen ala ez, Nafarroako populazio-gune handietan bizi edo lan egiten ez duten gure herritarren aukera-berdintasunerako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, Los Agustinos industrialdean trenbideak eteten duen Probintzietako edo “zezenena” izeneko abelbideari jarraitutasuna emateko aurreikusten diren edo egin diren ekintzei buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Los Agustinos industrialdean trenbideak eteten duen Probintzietako edo “zezenena” izeneko abelbideari jarraitutasuna emateko aurreikusten diren edo egin diren ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkarreko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Probintzietako Errege Abeldideak, edo “zezenena” izenekoak, Milagro eta Aezkoa lotzen ditu. Noain aldean aireportua inguratu eta, Ezkizozko errepidearen parean, Iruñeko dermioan sartzen da, Sadar errekaaren ibar txikian zehar.

Miluzera iristean topo egiten du lehenbiziko ukipenarekin, trenbidea handik pasatzen baita. Abeldideak zuzen gurutzatu beharko luke, hiltegiaren aurrera ateratzeko; baina horrela ezarri bada ere, abeldidea jarraitu nahi duenak 400 metroz desbideratu behar du, eta eskuinetik bidezubiaren azpitik pasa.

Ukipen larriena Agustinos industrialdearen iparraldeko mugan dago. Industria nabeak trenbidearen aurrean amaitzean, abeldideak trenbidea zeharkatu eta mendebaldera biratzen du trenbideetik beste aldera dagoen pista batetik, zeinetan bi mugarri baitaude, abeldideko eremua zedarritzeko, Nafarroako Ingurumeneko Departamentuak jarriak, honako idazkun honekin: “Cda CRP”, Cañada-Cañada Real de las Provincias.

Gure ustez, ADIFek urratu egiten du abeldideen gaineko arautegi indarduna, abeldide horren ibilbidea eteten duelako zona horretan, trenbidea ezarrita baitago abeldidearen jarraitutasunari eusteko alternatibarik aintzat hartu gabe –gaineko pasabide bat, esate baterako–.

Zer ekintza egiteko asmoa du edo egin du jadanik Nafarroako Gobernuak, Probintzietako edo “zezenena” izeneko abelbideari, Agustinos industrialdean trenbideak eteten duenari, jarraitutasuna emateko?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Foruzaingoaren polizia-etxeetan bideozaintzako tresnen eta atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen gaineko parlamentu-aginduaren betetze-mailari buruzkoa.**

### *UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoaren polizia-etxeetan bideozaintzako tresnen eta atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen gaineko parlamentu-aginduaren betetze-mailari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-zako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Beaumont andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2008ko apirilean, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroa Bai parlamentu-taldearen

mozio bat onetsi zuen, Foruzaingoaren polizia-etxeetan kamerak jartzekoa.

Haren bidez, orduko Nafarroako Gobernua premiatzen zen azterlan bat egin zezan, "atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloen egungo funtzionamenduari eta Foruzaingoaren polizia-etxeetan –bai nagusian bai lurraldekoetan– bideozaintzako kameraren instalazioa areagotzeko auke-rei buruzkoa."

Halaber, onetsitako mozioan Foru Gobernua premiatzen zen bideo-zaintzako gailuak jar zitzan, egoki izanez gero, behin egoera aztertuta eta botere judizialarekin lankidetzan, atxilotuak lekuz aldatu, erregistratu eta zaintzeko barne eremuetan, egiazkotasuna bermatzeko sistemekin, eta betiere atxilotuen intimitate-eskubidea nahiz Datu pertsonalen babesari buruzko Lege Organikoaren aplikazioa bermatuz. . .

Aurreko guztia kontuan hartuta,

Zein izan da, gaur arte, Parlamentuaren agindu horren betetze-maila, bai Foruzaingoaren polizia-etxeetan bideo-zaintzako kamerak instalatzeari dagokionez, bai atxilotuei laguntza medikoa emateko protokoloari dagokionez?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

## **Galdera, Foruzaingoko esku-hartzeko unitate bereziaren lana arautzeko protokolo bat prestatzeari begira Gobernuak duen konpromisoari buruzkoa.**

### *UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoko esku-hartzeko unitate bereziaren lana arautzeko protokolo bat prestatzeari begira Gobernuak duen konpromisoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Beaumont andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 legegintzaldirako programa-akordioaren 7.3.4 atalean honako hau ezartzen da Foruzaingoari dagokionez: "Foruzaingoko esku hartzeko unitate bereziaren lana arautzeko protokolo bat prestatzea; gomazko pilotak jaurtizeko eskopetak erabil daitezzen debekatzea; eta, atzera eragiteko, gomazko pilotak erabil daitezzen debekatzea."

Hori dela eta,

Zure departamentua zer urrats ari da egiten edo egitekotan da, programako konpromiso hori garatzeko?

Iruñean, 2016ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak dituen eskumenen barruan bekak emateko sistema aldatzeari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere eskaintzen dituen gradu edo bestelako titulazioak ikastetxe pribatuetan egiteko unibertsitate-ikasketetarako bekak emateari buruzkoa.**

### *MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak dituen eskumenen barruan bekak emateko sistema aldatzeari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere eskaintzen dituen gradu

edo bestelako titulazioak ikastetxe pribatuetan egiteko unibertsitate-ikasketetarako bekak emateari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren programa-akordio 2.2 atalak honako hau jasotzen du: "Bekak emateko sistema ikuspegi sozialago batetik aldatzea, ikasle guztiek erabili ahal izan ditzaten hezkuntza-

administrazioek sustatzen dituzten eskola jarduerak eta zerbitzu osagarriak."

Nafarroako Gobernuak arlo horretan dituen eskumenen barruan, Hezkuntza Departamentuak ba al du beka-sistema aldatzeko planik? Eta unibertsitate-ikasketetarako bekei dagokienez, ematen al da zentro pribatuetakoko unibertsitate-ikasketetarako bekarik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ere eskaintzen dituen gradu edo bestelako titulazioetarako?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

## **Galdera, "Etxebizitza jarduketetarako diru-laguntzak eta subsidioak" eta "Etxebizitzen errentarientzako diru-laguntzak" kontusailei buruzkoa.**

*LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, "Etxebizitza jarduketetarako diru-laguntzak eta subsidioak" eta "Etxebizitzen errentarientzako diru-laguntzak" kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Jakin izanenez, Nafarroako Gobernuak blokeoa ezarri die 2016ko aurrekontuko etxebizitza arloko bi kontusail garrantzitsuri, eta horregatik eskatzen da ekainaren 9ko Osoko Bilkurarako onar eta izapidetu dadin honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak gai horri buruzko azalpenak eman ditzan ahoz, honako hauei dagokienez:

"Etxebizitza jarduketetarako diru-laguntzak eta subsidioak" (900007 91200 7800 261400) kontusailari dagokionez, honako hau jakin nahi da:

- Ea data hori baino lehenago Etxebizitza jarduketetarako diru-laguntzetarako eta subsidioetarako kontusail horretan hasierako kredituen murrizketarik gertatu ote zen.

- Ea kontusailaren egungo balioa nahikoa ote den Departamentuak urte-amaieran izanen bide dituen ordainketa-betebeharrei aurre egiteko.

- Ea Departamentuak uste duen neurri horrekin bultzatu ahal izanen dituela energia-birgaitzearen arloko operazioak nahiz beste operazio orokor batzuk; bereziki, Iruñeko Txantrean eta Arrosadian iragan legegintzaldian hasitakoak.

- Ea koherentea iruditzen zion birgaitze-laguntzak handitzea eta dagoen kreditua murriztea.

- Nafarroako Gobernuak zer pentsatu du egi-  
tea baldin eta abian diren espedienteen behin betiko kalifikazioen ondotik eskatutako ordainketen zenbatekoa handiagoa bada erabilgarri dagoen azken zenbatekoa baino?

"Etxebizitzen errentarientzako diru-laguntzak" (900007 91200 4809 261400) kontusailari dagokionez, honako hau jakin nahi da:

- Zeintzuk izanen diren Departamentuak urte-amaieran ustez izanen dituen ordainketa-betebeharra, eta ea orain erabilgarri dagoen zenbatekoa nahikoa izanen ote den horiei aurre egiteko.

- Ea bere ustez aurten betebeharrak ez diren handituko, nahiz eta gero eta handiagoa den errentarako laguntzen gehienekoa eskuratzen duen herritarren proportzioa.

- Ea neurririk hartuko ote duen gastu hori mugatzeko, eta ea nolako neurriak diren horiek.

- Ea zure Gobernuak eta zuk zeuk zer egingen duzuen baldin eta neurri horiek aski ez badira.

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, hainbat kontusailen blokeoak INTIA enpresa publikoan duen eraginari buruzkoa.**

*MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztutako galdera, hainbat kontusailen blokeoak INTIA enpresa publikoan duen eraginari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, ekainaren 9ko Osoko Bilkuran Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziozko kontseilariak ahoz erantzun diezaion:

Gaurko egunez –2016ko ekainaren 2a–, Nafarroako Gobernuak blokeatuta dauzka kontusailok:

710000 71210 4400 412107 Nekazaritzako I+G+Ba, esperimenez, demostrazioa eta informazioa (1.653.333 euro).

710000 71210 4400 412108 Aholkularitza zerbitzuak. PDR FEADER (1.740.600).

720000 71510 7609 414100 Herri-lurretako ureztatze-azpiegiturarako inbertsioak (467.000).

720000 71510 7700 414102 Ureztatze berriak. Nafarroako ubidea. Lurzatian instalatzea (538.000).

Lau kontusail horien batura 4.398.933 €-koa da, eta INTIARI zuzenean eragiten diote bere bi dibisio nagusietan. Berrikuntza, teknologia eta kudeaketa dibisioa eta Ureztatze eta azpiegitura dibisioa.

Blokeo honek zer eragin izanen du enpresa publiko horren etorkizunean?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: María Carmen Segura Moreno

## **Galdera, Gizarteratze Errentaren defizitari buruzkoa.**

*MARIBEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maribel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Gizarteratze Errentaren defizitari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, ekainaren 9ko Osoko Bilkuran Eskubide Sozialetako lehendakariordeak ahoz erantzun diezaion:

Orain dela gutxi egindako jendaurreko adierazpenetan, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak adierazi du Gizarteratze Errentarako kontusaila 57 milioi eurokoa dela, baina "darabiltzagun estimazioen arabera gastua 78 milioi eurokoa" izatera hel daitekeela, eta orobat adierazi zuen aurrekontuaren blokeoak defizit hori estaltzearen helburua duela. Adierazpen horiek ikusita, defizit hori Gizarteratze Errentari zor zaio –errenta horrek gaur egun daukan taxutzeari, hain zuzen ere–, ala defizitak iragarri den Errenta Bermatuaren antolara berriaren kostua ere jasotzen du?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

## **Galdera, Nafarroako Medikuen Sindikatuak aurkeztu duen salaketari buruzkoa, Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdietan lehenengo urteko Barneko Mediku Egoiliarrak B zirkuituko paziente larrien kasuez ere arduratzen omen direla-eta.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Medikuen Sindikatuak aurkeztu duen salaketari buruzkoa, Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdietan lehenengo urteko Barneko Mediku Egoiliarrak B zirkuituko paziente larrien kasuez ere arduratzen omen direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Medikuen Sindikatuak maiatzaren 5ean prentsaren bidez salatu zuen lehenengo urteko Barneko Mediku Egoiliarrak B zirkuituko paziente larrien kasuez ere arduratzen direla Nafarroako Ospitaleguneko Larrialdietan, eta horrek nolabaiteko alarma soziala sortu ahal izan du.

Informazio hori egiazkoa al da?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa.**

### *BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak ekainaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

UPNk koloneko minbiziaren detekzio goiztiarrerako programa ezarri zuen Nafarroan 2013an, lau urteren buruan herritarren % 100era iristeko kronograma batekin. Kanpaina hori 50 urtetik 69 urtera bitarteko 166.000 nafarri zuzenduta zegoen.

Nafarroako detekzio goiztiarreko programaren dokumentuak berariaz jasotzen du minbizia diagnostikatzen denetik tratamendua hasi bitarteko epea ahal den motzena izanzen dela, eta betiere 30 egun baino gutxiagokoa. .

2015eko maiatzean, Nafarroako Gobernuan artean UPN zegoela, kirurgiako kontsultatik ebakuntzara bitarteko batez besteko itxaronaldia 30 egun horiek baino gutxiagokoa zen detekzio goiztiarreko programaren bidez diagnostikatutako koloneko minbiziko kasuetan.

– Zein izan da azken urteko bilakaera? Zein da kirurgiako kontsultatik ebakuntza kirurgikora bitarteko batez besteko itxaronaldia detekzio goiztiarreko programan sartuta dauden gaixoen kasuan?

– Zeintzuk dira batez besteko itxaronaldia eta horren azken urteko bilakaera, kolonoskopiaren datatik ebakuntza kirurgikoa egiten den arte, programan sartuta dauden gaixoen kasuan?

– Osasun Departamentuak ba al dauka planik batez besteko itxaronaldia kirurgiako kontsultatik ebakuntza kirurgikora arte 30 egun baino gutxiagokoa izatea bermatzeko?

– Batez besteko itxaronaldi horiei nola eusteko asmoa du, koloneko minbiziaren kirurgia-programa berezia bertan behera utzi ostean?

Iruñean, 2016ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola



## **Galdera, jakitekoa zergatik Gobernuak ez zion Nafarroako gizarteari aurrekontu-egoeraren eta egin duen 23 milioi euroren blokeoaren berri eman.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zergatik Gobernuak ez zion Nafarroako gizarteari aurrekontu-egoeraren eta egin duen 23 milioi euroren blokeoaren berri eman.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez zion Nafarroako gizarteari aurrekontu-egoeraren eta egin duen 23 milioi euroren blokeoaren berri eman?

Iruñean, 2016ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, jakitekoa Pablo Sarasate Orkestra Baluarte Fundazioan sartzeak zer dakarren bere finantzaketari, funtzionamenduari eta osaerari dagokienez.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Pablo Sarasate Orkestra Baluarte Fundazioan sartzeak zer dakarren bere finantzaketari, funtzionamenduari eta osaerari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero

andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak heldu den ekainaren 9ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Pablo Sarasate Orkestra Sinfonikoa Baluarte Fundazioan sartuta egonen da heldu den irailetik aitzina. Orobat jakin dugu Pablo Sarasate Fundazioak 1.550.000 euroko zorra metatu duela.

Pablo Sarasate Orkestra Baluarte Fundazioan sartzeak zer dakar bere finantzaketari, funtzionamenduari eta osaerari dagokienez? Zein da egungo zorraren jatorria? Gobernuak zer aurreikuspen darabil zor hori kitatzeari begira eta orkestra horren finantza-autonomia bermatzeko?

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institutuaren Patronatuari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Teresa Sáez Barrao andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera IdiSNA-Nafarroako Osasun Ikerkuntzako Institu-

tuaren Patronatuari buruzkoa zen, eta 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan martxoaren 17an izandako istiluei buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Unibertsitate Publikoan martxoaren 17an izandako

istiluei buruzkoa zen, eta 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Lodosako BHIan D eredia ez eskaintzeko dauden arrazoiei buruzkoa.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Lodosako BHIan D eredia ez eskaintzeko dauden arrazoiei buruzkoa, Hezkun-

tzako kontseilariak erantzun dezan. Galdera 2016ko maiatzaren 10eko 65. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Galdera, Enpresa Publikoetarako Gardentasun Planari buruzkoa.**

### *GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Guzmán Miguel Gardemia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Enpresa Publikoetarako Gardentasun Planari buruzkoa, Garapen Ekonomikorako kontseilariak

erantzun dezan. Galdera 2016ko ekainaren 3ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

